



Osasuna eta hizkuntza VII: hizkuntza eskakizunez harago



Ira. 13 2024

Kod. 017-24

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 13 2024

Kokalekua

Sanagustin kulturgunea

Hizkuntzak

Euskara Ingelesa

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea





Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Azalpena

Pazienteen hizkuntzan ematen diren zerbitzuen eskaera gero eta handiagoa da, bai Euskal Herrian bai nazioartean. Eskaera horrek indarrean dagoen ebidentzia zientifikoaren babesa dauka (arretaren kalitateari pazienteen segurtasun zein ongizate eta gogobetetzeari lotuta), eta tokiaren arabera, baita legearen babesa ere. Testuinguru horretan, osasun langileek hizkuntza gutxituko pazienteei kalitatezko arreta bermatzeko xedez bete behar dituzten hizkuntza eskakizunen gaineko eztabaida puri-purian dago Euskal herrian, hala nola, Galesen, Kanadan, Finlandian, AEBetan eta beste herrialdeetan.

Helburuak

Osasun arloko hizkuntza plangintzaz eztabaidatzea.

Hizkuntza eskakizunez harago osasungintzan euskararen erabileraren determinatzaile diren beste zenbait gako mahai gainean jartzea.

Euskal Herritik kanpo hizkuntza eskakizunez harago duten begirada ere ekarri nahi izan dugu.

Antolakuntza

Lankidetzak



Programa

2024-09-13

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:25	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Jon Zarate Sesma EHU - Uda Ikastaroaren Zuzendaria Aitor Montes Lasarte Osakidetza - Uda Ikastaroaren Zuzendarikidea Martin Aramendi UEMA - UEMAko lehendakaria
09:25 - 10:00	“Oinarriak: euskarazko osasun arretaren eskaera eta hizkuntza eskakizunaren eragina osasungintzako euskararen erabileran” Iñaki Iurrebaso Biteri UEMA - Ikerketa teknikaria
10:00 - 10:30	“Hizkuntza eskakizunen plangintza Osakidetzan” Gontzal Lopez Lopez Osakidetza - Euskara Zerbitziburua
10:30 - 11:30	“Hizkuntza eskakizunen dekretu berriaren eragina osasungintzan eta euskararen erabilera sustatzeko politikei emandako erantzun judiziala” Iñigo Urrutia Libarona EHU - Aldezlea
11:30 - 12:00	Atsedena - kafea
12:15 - 12:45	“Osasun arreta euskaraz jasotzeari buruzko pertzepzioen ebaluazioa EHUko Medikuntza graduan” Jon Zarate Sesma EHU - Ikertzailea
12:45 - 13:30	Mahai ingurua: “Lan eskubidea vs hizkuntza eskubidea, eta kalitatezko osasun arreta? Eztabaida sindikal-instituzional-soziala” Garikoitz Goikoetxea Etxeberria UEMA - Teknikaria (Moderatzailea) Pello Igeregi ELA sindikatua - Euskara arduraduna Agurne Gaubeka Erauskin Behatokia - Behatokiko Zuzendaria
13:30 - 15:25	Atsedena
15:30 - 16:00	“Hizkuntza politikak kataluniako osasungintzan” Iker De luz Colás Omniu Cultural - Hizkuntza arduraduna
16:00 - 16:30	“Herrialde kurduak jasaten duen opresioa osasun arretaren irisgarritasunean” Tevfik Bayram Montrealko Unibertsitatea - Ikertzailea
16:30 - 17:00	“Osasun arreta palestinarrentzat eta Israeldarrentzat” Dani Flic Standing Together eta Ben Gurion Unibertsitatea - Koordinatzailea Shahd Bishara Standing Together - Kidea

Zuzendaritza



Jon Zarate Sesma

UPV/EHU

Jon Zarate Sesma (Lekeitio, 1979) UPV/EHUko Farmazia eta Elikagaien Zientziak Saileko kide da. Farmazia Fakultateko irakaslea da eta Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea. Farmazian doktorea da (UPV/EHU, 2007) eta 2016ko osasun-arloko Koldo Mitxelena euskarazko tesi onenaren zuzendaria izan da. Azken urteetan gene terapiarako garraiatzaile ez-biralen garapenean ikertzen aritu da. Goi mailako nazioarteko ikerketa aldizkarietan 20 artikulutik gora dauzka argitaratuta eta euskarazko produkzioa zientifikoa ere nazioartekoaren parekoa dauka Ekaia edo Elhuyar bezalako aldizkarietan.



Aitor Montes Lasarte

Osakidetza

Basaurin jaioa (1972), Euskal Herrian. Medikuntzan lizentziaduna UPV/EHU, 1999an. Familia medikuntzako espezialitatea burutu zuen 2004an, Galdakao-Usansoloko ospitalean (Euskal Herria). Gaur egun familia medikua da Aramaion, Debagoiena Erakunde Sanitario Integratuan (ESI), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan. OEEko (Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea) kidea. Euskal prentsan iritzi artikulua idazten ditu noizean behin. Hizkuntza eta osasungintzarekin zerikusia duten hamar bat argitaratu ditu aldizkari zientifikoetan, batik bat Osagaiz, BAT soziolinguistika aldizkarian eta International Journal of Integrated Care aldizkarian. Eskalatzaila, zenbait bide berri zabaldu eta argitaratu ditu prentsa espezializatuan.

Irakasleak



Martin Aramendi



Tevfik Bayram



Shahd Bishara



Iker De luz Colás



Dani Flic



Agurne Gaubeka Erauskin

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA



Garikoitz Goikoetxea Etxeberria



Pello Igeregi



Iñaki Iurrebaso Biteri

EHU

Soziologian doktorea. Donostiako Udalean soziologo lanetan aritua. Aztiker Ikergunearen sortzaile taldeko kide eta bertako zuzendari tekniko. Soziolinguistika gaietan aritua hainbat bezerorentzat lanean (Eusko Jaurlaritza, Soziolinguistika Klusterra...). EHUko Hezkuntza Zientziak saileko irakasle eta ikerlari izana. 2023tik ikerketa teknikari UEMAn.



Gontzal Lopez Lopez

OSAKIDETZA

Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboko burua da 2019tik. Euskal Filologian lizentziaduna da (Deustuko Unibertsitatea, 1994), eta HIZNET Hizkuntza-plangintzako graduondokoa (EHU, 2003) eta Terminologia masterra (Pompeu Fabra, 2014) eginak ditu. Helduen euskalduntzeko irakaslea izan zen AEKn (1989-1998), euskara trebatzailea Artez euskara zerbitzuan (1999-2000) eta euskararen normalizazioko teknikaria Ortuellako Udalean (2000-2005), Donostiako Ospitalean (2006-2010) eta Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian (2011-2019). Euskararen gramatika eta normalizazioari buruzko zenbait artikulua idatzi ditu Aizu, Ele, Mendebalde Alkartea, Administrazioa euskaraz eta Osatuberi aldizkarietan, eta Traumatologia hiztegia (Eusko Jaurlaritza, 2017), Osakidetzaren euskarazko estilo liburua (Osakidetza, 2022) eta Kardiologia hiztegia (Eusko Jaurlaritza, 2023) argitaratu ditu lantaldean. Itzulbide itzultzaile neuronalaren lantaldeko partaidea da.



Iñigo Urrutia Libarona

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-09-13 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	33,00 EUR
Orokorra	-	47,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	40,00 EUR
Matrikula exentzia	-	33,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	40,00 EUR
Elkar	-	40,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	40,00 EUR
Donostia Kultura	-	40,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2024-05-31 ARTE	2024-09-13 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	33,00 EUR
Orokorra	-	47,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	40,00 EUR
Matrikula exentzia	-	33,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	40,00 EUR
Elkar	-	40,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	40,00 EUR
Donostia Kultura	-	40,00 EUR

Kokalekua

Sanagustin kulturgunea

Plaza Nagusia, 5, 20730 Azpeitia, Gipuzkoa

Gipuzkoa